

# Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala ospatuko da bihar Altsasun

**BI TXANDA IZANEN DIRA, TXIKIENA GOIZEZ (11.00) ETA HANDIENA ARRATSALDEZ (16.00)**

**23 gaztek hartuko dute parte Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak antolatzen duen saioan, lau nafarrak**

IRUÑEA. 17. Euskal Herriko Eskolarteko txapelketaren finala bihar ospatuko da Altsasuko Burunda pilotalekuan. Bertsolari gazteak bi maila ezberdinetan lehiatuko dira, txikiena eta handiena. Lehenengoa goizeko 11etan hasiko da, bigarrena berriz arratsaldeko 16.00etan.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak euskal lurraldeetan bertsolariaren ezagutza zabaltzeko eta jardun hori bultzatzeko duen xedea dela eta, Altsasuko udalarekin hiru urterako akordioa izenpetu du.

Orain arteko bidean lurraldeetako txapelketak jokatu dira, eta arestian aipatutako bi taldeak izan dira horren emaitza. Lurraldeetako txapelketetan izan den maila onak Altsasuko finalerako ikusmina areagotu du. Arabatik Xabi Igoa eta Mikel Serrato aramaiorrek kantatuko dute txikietan eta Izar Mendiguren eta Hodei Lopez de Arkautek handietan. Bizkaitik, Xabier Iturraspe eta Nagore Beitia sailkatu ziren txikienen artean, eta handiei zegokien saioan Itsaso Paia eta Miren Amuriza izan ziren sarituak hurrenez hurren. Gipuzkoan Mikel Olaizola eta Amaia Iturriotz sailkatu ziren txikietan. Handietan, Añorgako Unai eta Beñat Gaztelumendi anaiak sailkatu ziren. Josu Sanjurjo eta Ioar Taintak kantatuko dute Nafarroaren izenean txikietan, eta handietan Julio Sotok eta Xabi Salvadorrek. Azkenik, Iparraldetik Mattin eta Bixente Luku anaia donibanezaraztarrek, Ximun Cazaubon eta Txomin Elozegi izango dira txikietan Altsasun, eta handietan, berriz, Maddalen Arzallus, Patxi Iriart eta Mizel Mateo.

Finala Estitxu Fernandez aurkezle ezagunak aurkeztuko du eta

berak emango dizkie bertsolariak Gasteizko taldeak jarritako gaiak. Epai-lanetan, aldiz, Eneko Bidegain eta Iñaki Etxeleku Iparraldetik, Joseba Santxo Bizkaitik, Mikel Aizpurua Gipuzkoatik, Ekaitz Elorriaga Arabatik eta Jon Abril Nafarroatik ariko dira. Idazkari lanak Xabier Paiak egingo ditu. Ekitaldirako bereziki egindako kartela Felix Garridok diseinatu du.

Goizeko zein arratsaldeko saioek egitura piramidala izango dute. Goizeko saioan txikiek kantatuko dute, eta ondorengo lanak bete beharko dituzte: agurra gai baten inguruan (bi talde egingo dira, beraz, bi gai), lau oinak emanda bertso bana eta binaka ofiziotan bina bertso zortziko txikian. Hortik aurrera sei puntuatuenek jarraituko dute eta hitza emanda bertso bana kantatu beharko dute zortziko handian nahiz txikian. Bukatzeko, sei puntuatuenek bina bertso kantatu beharko dituzte ofiziotan zortziko handian. Honenbestez bukatuko da goizeko saioa, eta sarituen izenak emango diren arren, arratsaldeko saioaren ostean banatuko dira sari guztiak. Arratsaldean, handien saioari

ekingo zaio. Agur bana kantatu ondoren, lehenik zortziko handian egin beharko dute ofiziotan, bakoitzak bina bertso. Ondoren, zortziko txikian hiruna bertso kantatuko dituzte ofiziotan eta honenbestez aurrera egingo duen boskotea aukeratuko da. Bost hauek kartzelako lana izango dute zain, eta bertan puntu bati erantzun eta gai baten inguruan bina bertso kantatu beharko dituzte.

Sariei dagokionez, txikien nahiz handien mailako txapelkun eta txapelkunordeek jasoko dituzten sariez gain, bada finalista guzientzat sari berezi bat ere. Txikien zein handien mailako finalistek astebeteko ibilaldi baterako txartel bana jasoko dute Ikastolen Konfederazioaren eskutik. >I.F.



Xabier Silveira, Julio Soto, Erika Lagoma eta Oier Lakuntza Nafarroako Bertso Txapelketan. ARGAZKIA: D.N.

INTERNET > **Erantzun.com**  
musika atari berria sarean

Euskal musikak atal berri bat du: *erantzun.com*. Web gunea "herri musiken erakuslehoia eta bilgunea" izan asmo duen on-line egitasmo berria da. Proiektuaren arduradunek azaldu dutenez, atari honen helburua "bertako nahiz kanpoko musika garaikideaz informatzea, musika zaletasuna sustatzea eta Euskal Herriko ekoizpenei arreta berezia ematea" dira. *Erantzun.com*-ek hilabete batzuk daromatzea sarean, eta denbora guzti honetan, edukiz hornitu ez ezik, hainbat hobekuntza gehitzen joan dira. Atariak 20 azpiatal ditu, eta musikaren aspektu guztiak lantzen ditu: berriak, agenda, diskoak, kronikak, elkarrizketak, erreportajeak eta komikia. Atal batean gainera, maketak zintzilikatzeko aukera eskainiko da. >D.N.

UEU > **Igandean amaituko da Udako Ikastaroetan matrikulatzeko epea**

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) 33. Udako Ikastaroak uztailaren 4tik 22ra bitartean burutuko dira Miarritze, Eibar eta Iruñean, eta bertan matrikulatzeko epea igande honetan amaituko dela jakinarazi dute UEUko iturriek. Matrikulatzeko modurik zuzen eta errazena UEUren webgunetik egitea da, [www.ueu.org](http://www.ueu.org) helbidean. Honetaz gain, UEUren egoitzetan ere egin daiteke matrikula. >D.N.

EUSKARA > **Kultur zikloa antolatu du Burlatako Udalak datorren asterako**

Burlatako Udalak hainbait ekitaldiko Kultur Zikloa antolatu du ekainaren 20a eta 25a bitarte. Musika eta antzerki ekitaldiak izango dira euskaraz. Obrarietako plazan antolatuko dira ekitaldi guztiak, arratsaldeko 20.00etatik aurrera, eta euria egiten badu, Hilarion Eslava Kiroldegira eramango dira. Txirri, Mirri eta Txiribiton Jr. pailazoaren saioa ordea, Kultur Etxean izango da 19.00etatik aurrera.

## PROGRAMA

6/20	Kontzertua: Irats trikitixa taldea
6/21	Haurrentzako antzerkia
6/22	Haurrentzako txotxongiloak
6/23	Txirri, Mirri eta Txiribiton Jr. pailazoak
6/25	Kontzertua: Gozategi

KRITIKA > LITERATURA

## Maitasunak ez du barkatzen (edo zenbait apeten erakarria)

**E**Z dut nik asmatu izenburua-ren lehen parte: Pedro Berrondok esan omen zituen hitz horiek, Quixote zergatik euskaratu zuen galdetu ziotenean. Otu zait maitasunak ez duelako barkatzen itzuli dituela Jon Alonsok Julio Cortazarren ipuin hauek, modu arrazional huts batez diseinatzeko onartzen ez duen grinak bultzatuta.

Ipuinen idazleak jada ezer esan ezin duenez, haren itzultzaileek esan behar dute zerbait, idazlearen obraz zein haiek egindako lanaz. Eta Jon Alonsok esan du: modu apetzatsuan aukeratu dituela ipuinak, zehatz eta oro-hartzaille izateko inongo asmorik gabe.

Agian hori da asmatzeko gako, beharbada subjektibotasuna objektibotasunaren helmugara

### JULIO CORTAZAR. ANTOLOGIA APETATSUA

Idazlea: Julio Cortazar. Itzultzailea: Jon Alonso. Argitaletxea: Txalaparta. Urtea 2000.

#### INMA ERREA

iristeko bide segurua da, impresioa baitut asmatu duela hautuan: nahi barik ere Julio Cortazarren lagin esanguratsua euskaratu baitu, kontziente naizen arren beste batzuk aukeratuta ere berdindin asmatu ahal zukeela. Denetik pixka bat, aniztasuna maite duen edonorendako proposa. Hor daude, Julio Cortazarren ipuin horietan, idazle argentinarrak munduari oparitu zizkion harribitxietako anitz: irudimenaren joko artegarriak

(Etxe hartua), kontakizun tarrekatzek -trebeak bezain aztorgarriak- (Gaua ahoz gora, Suak oro sua), atsekaberantz ezinbestean garamatzaten ahots txandakatzeko trebeak (Cora andereñoa), ikuspegi trukaketa harrigarri bezain zailak (Deabruaren lerdea), giro antsiatuak -abantzu esan gabe iradokiak- (Amatxoren gutunak), aitzina egin ahala irakurlea laborri betean murgiltzen dituzten ipuinak (Klikades irletako idoloa), absurdoaren amildegia begira paratzen gaituzten tramak (Jarraibideak Jon Howelentzat, Zinez maite dugu Glenda), kontakizun politiko errealistak (Bilera)... Eta, guztietan, hitzekin aritzeko Cortazarren abilezia ikaragarri hori, garaia, tokiak zein narratzaileak maisuki

nahasteko joera, idatzi bitartean lagun omen zuen jazzari ostutako swinga kontakizunaren erritmoa bilakatuta... Hori guztia, euskara on eta erosoan paratua, itzultzaileak Cortazarrek hitzak jostean hartzen zituen lizentziak errepikatzen lana hartu duela irakurri.

Honako hau ez dugu Julio Cortazarren lanak euskaraz leitzeko lehen aukera. Orain baino lehen ere, 1992an, Gerardo Markuletak Oktaedroa ipuin sorta itzuli baitzuen euskarara. Oraingoa, ordea, Jon Alonsok hasiera batean literatur tailerretan zein Idazle Eskolan erabiltzeko itzultzen hasi zen ipuinak gehitu ditu, Txalaparta etxeak argitaratu emanda.

Jon Alonsok esana du ez duela maite Cortazar ipuingilearen eta Cortazar nobelagilearen arteko

dikotomia, Cortazar irakurtzea duela maite, lepoko zainetara jauzi egiten ei dioten pertsonaiez eta egoerez beteriko ipuinak idazle handi baten tour de force jotzen duen Rayuela bezainbat irakurri ere. Hori ez bada maitasuna... Ezin ahaztu, bestalde, Cortazar ere itzultzaile aritu zela.

Amaitzeko, ez diot uko eginen tentazioari. Cortazarren hitzak dira, Alonsok euskaratuak, Deabruaren lerdea ipuinean jasoak: "Ez dago jakiterik hau nola kontatu behar den, lehen pertsonan edo bigarrenan, pluraleko hiru-garrena erabiliz edo ezertarako balioko ez duten formak etengabe asmatuz. (...) ...beharbada kontatzea erantzun bat bezala da, gutxienez irakurtzen duen horrentzat." Labur esanda: literatura hutsa.